

Espedientearen kodea: 2025ID130002

Espedientearen gaia: Oiartzungo Udala GARBITANIAko kide egitea

Titularra: OIARTZUNGO UDALA

KUDEAKETA ZUZENA EGITEKO ETA KUDEAKETA HORI TOKIKO MERKATARITZA-SOZIEATEAREN ESKU UZTEKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUEN MEMORIA (85.2 TAOL).

I.- AURREKARIAK

1) Udal honen 2010eko maiatzaren 4ko udalbatzak honako akordioa hartu zuela:

“Lehenengoa.- Behin betiko onartzea bere garaian San Markoseko Mankomunitatearen esku utzitako hondakinen bilketa, tratamendu eta ustiapen eskumenak berreskuratzea Oiartzungo Udalak egikaritu ditzan: alde batetik, hasiera batean, hiri-hondakinen atez ateko gaikako bilketa zerbitzua zeharka, egun hiri-hondakinen bilketa zerbitzuaren kudeaketa esleitua duen enpresaren bitartez; bestetik, hondakin horien tratamendu zerbitzua zuzenean Hernani eta Usurbilgo udalekin bat eratuko duen nortasun-juridiko propiodun entitatearen bidez. Honela egingo da:

1. Hauek dira Oiartzungo Udalak berreskuratuko dituen berariazko eskumenak:
 - a) Hiri-hondakinen eta asimilagarrien bilketa eta kudeaketa, honako hauena izan ezik: beira, etxeko hondakin arriskutsuak, pilak eta arropa eta, industria-poligonoetan, egurra. Beraz, organikoen, edozein eratako paper eta kartoien eta ontzi arinen bilketa eta kudeaketa berreskuratzen dira:
 - Lehenengo fasean, hirigunean eta barreiatuetan.
 - Bigarren fasean, industria poligonoetan.
 - b) Tamaina handiko hondakinen bilketa eta kudeaketa.
 - c) Hiri-hondakinen eta asimilagarrien tratamendua eta balorazioa:
 - Konposta daitekeen zati organikoa
 - Papera eta kartoia (edukiontzi urdina)
 - Ontzi arinak (edukiontzi horia)
2. Bestelako eskumenek San Markoseko Mankomunitatearen esku jarraituko dute (...).”

2) Ebazpena egikaritzeko 2010eko maiatzaren 7an Oiartzungo alkatea, Hernani eta Usurbilgoarekin batera, GARBITANIA ZERO ZABOR S.L. izeneko Erantzukizun Mugatuko Merkataritza Sozietatea sortu zutela, Miguel A. Martinez Urroz notarioaren aurrean izenpeturiko eskritura publikoaren bidez (prot. 608), baita entitate horren estatutuak onartu ere.

Estatutuen 1. artikulua araber, 3 udal eratzailak udalen bitarteko propio izendatu zuten eta zerbitzu tekniko izaera eman zioten.

Esandako Oiartzungo udalbatzaren ebazpenean jaso bezala, GARBITANIA ZERO ZABOR S.L. Sozietatearen helburuak honakoak dira:

“Sozietatearen helburua bat izango da: hiri hondakinen eta asimilagarrien gaikako bilketa, kudeaketa, ustiaketa eta tratamendua, hala badagokio, gai horri buruz indarrean dauden lege xedapenak eta Europakoak betez, eta hondakinak gutxitzeko eta ahalik eta birziklatze maila altuenak lortzeko eta, hartara, arlo honetan indarrean dauden xedapenek diotena hobeto lortzeko helburua duten bilketa, kudeaketa eta tratamendu sistema bereziak hobetzeko moduak eta neurriak hedatzea.”

3) Aipaturiko 2010 urteko akordioa horretan, Oiartzungo udalak San Markosen esku utzitako kudeaketa berreskratu ondoren, hiri-hondakinak atez ateko gaikako bilketa zerbitzua zeharka,

esleituta zuen enpresaren bitartez, gauzatzea erabaki zuen. Eta industria eremuko gaikako bilketa San Marko Mankomunitateak ematen jarraitu zuen.

4) Ondoren, Oiartzungo udalak, 2013ko martxoaren 20an akordioaren bitartez, GARBITANIA ZERO ZABOR S.L. bere partaidetza sozialaren zati bat saltzea erabaki zuen eta 2014ko ekainaren 25en sozietatetik ateratzea erabaki zuen.

5) Bestalde, udalerriko eremu industrialei dagokionez, bertan sortutako udal-hondakinen kudeaketa udal eskumenekoa izan arren, 2004ko uztailaren 1ean Oiartzungo Udal Osoak *“Udalerrri honetako industria poligonoetan udal-hondakinak edo horiekiko asimilagarriak biltzeko betebeharrak San Markoseko Mankomunitateari transferitzea. Halaber, Mankomunitateak legez xedatzen dituen zergak kobratzea”* erabaki zuen. Geroztik horrela egin du San Markoseko mankomunitateak entitate horrek onarturiko tasen Ordenantzaren arabera, egungo tasa 2017ko Ordenantzan ezarritakoa delarik.

II.- INDUSTRIA EREMUETAN HONDAKIN BILKETA HOBETZEKO LANKETA: UDALAK KUDEAKETA BERRESKURATZEA

1) Gauzak horrela, aipatu eremu industrialen egoera ikusirik, udal honen zerbitzu teknikoek 2024ko ekainean Oiartzungo poligonoetan hondakinen bilketa buruzko azterketa teknikoak abiatu zuten, landa-lana egiteko langile baten bitartez, eta honako ondorioak antzeman ziren:

- Oraingo hondakinen kudeaketa nabarmen hobetu daiteke. Birziklagarriak diren 131.356 kilo hondakin gehiago gaika jasotzea ahalbideratuko lukeela, eta bestalde zabortegira edo errauskailura bideratzen diren 396.910 kilo hondakin kopurua murriztuko luke ingurumena zainduz eta udalak jaso beharreko diru-sarrerak handituz nahiz gastuak murriztuz.
- Bilketa eraginkorra modu efizientean egiteko aukera dago, ekoizle txikien zergak zainduz, sortzearen araberako ordainketa justuagoa aplikatuz eta erabaki irmoak hartuz gero.
- Udalak herriguneko hiri-hondakinen gaikako bilketa zerbitzua eta industria gunetakoak uztartzeko aukera dauka, ahalik eta sinergia gehienak aprobetxatuz eta bilketa-eraginkortasuna areagotuz.

2) Ondorioz horien irakurketatik abiatuta, ondoren, “industria-poligonoetako hondakinen kudeaketa eraginkorra burutzeko eta sortzearen araberako ordainketa optimizatzeko azterketa” enkargatu zion GARBITANIA ZERO ZABOR S.L.ri, espedientea jasota gelditu den moduan. Azterketaren ondorioak dira zerbitzua hobetu litekeela birziklapena hobetuz, zabortegira eta errauskailura ematen den frakzioa gutxituz eta zergak, legez ezarrita dagoen bezala, sortzearen araberako ordainketaren bidez antolatuz. Gainera, bideragarritasun ekonomikoa bermatuz eman litekeela San Markoseko Mankomunitateak 2026ko otsailaren 2an argitaratu dituen tasa berriaren oso antzekoak aplikatuta (zentimo baten gora behera).

III.- BIDERAGARRITASUN TEKNIKOA, JURIDIKOA ETA EKONOMIKOA

Alderdi teknikoari dagokionez, udal mendi eta ingurumen teknikariak txostena eman du honako ondorioekin:

Hondakin tasei buruzko Europako zuzentarauaren helburua da zaborren tasak kudeaketa kostu errealean (bilketa, garraioa, tratamendua) % 100 estaltzea, "kutsatzen duenak ordaindu" printzipioa aplikatuz, hondakinen murrizketa eta birziklapena sustatzeko eta Europako birziklapen helburuak betetzeko (%55 2025ean, %65 2035ean). Hori Hondakinei buruzko 7/2022 Legearekin

inplementatzen da estatuan, zeinak udalerrriak tasa espezifiko eta bereizi bat ezartzera behartzen dituen, "sorkuntza bidezko ordainketa" sistemak ahalbidetuz, non gehien kutsatzen duenak gehien ordaintzen duen, pizgarri ekonomikoak ingurumen helburuekin lerrokatzeko.

Gainera, kudeatzaile pribatuekin kudeatu beharreko hondakin industrialak hiri-hondakinen kudeaketa-zirkuitutik kanpora atera behar dira, hain zuzen lege ezberdinek (7/2022 Legea hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, 646/2020 hondakinak zabortegetan deuseztea arautzen duen Errege Dekretua, e.a.) horrela kudeatzea agintzen dutelako. Era berean, Oiartzungo Udalak, 2018/851 Hondakinen inguruko Europar Direktibak gomendatu bezala, hondakin sorrerak eta hondakinen kudeaketak eragindako inpaktu negatiboak prebenitzen edo/eta murrizten eta Ingurumena eta giza-osasuna babesten jarraitu nahi du.

- Ingurumenari dagokionez, udalak Oiartzungo industria-poligonoetako hondakinen kudeaketa berreskuratzen badu, hiri-hondakinen kudeaketa eraginkorragoa egin ahal izango luke. Esparru honetan sortzen diren hiri-hondakinak murriztu eta gehiago birziklatzea lortuko luke, gaikako bilketa %65etik gutxienez %80ra pasatzea ahalbideratuz, hots, birziklagarriak diren hondakinak gaikako bilketaren zirkuituan sartuz, zabortegira errefus geldo gutxiago bideratuz eta erraustegira errefusa gutxiago eramanez.
- Industria-poligonoetako hondakinak kudeatzeko, gaur egun, San Marko Mankomunitateak 2 hondakin-hezitzaile, soilik, ditu Mankomunitateko esparru osorako. Bideragarritasun azterketa txostenean, aldiz, Oiartzungo industria-poligonoetarako hondakin-hezitzaile propio bat proposatzen eta ekonomikoki gastuen artean sartzen da.
- Bideragarritasun ekonomikoari dagokionez, goizeko bilketa lehenesten denez, eta bilketa zerbitzua ekonomikoki bideragarria izan dadin, zergaren zati finkoaren atalean m² bakoitzeko 0,01 €-ko igoera proposatzen da, hau da, San Marko Mankomunitateak aplikatzen duen 0,22 €/m² izan beharrean, 0,23 €/m² aplikatzea, modu horretan emaitza ekonomikoa positiboa ateratzen delako.
- Gaur egun, udalak ez dauka baliabide nahikorik, hau da, udalak dituen giza baliabide eta materialekin ezingo luke zerbitzu hori eskaini, horregatik, ezinbestekoa da kanpo kontrataziora joatea. Hori dela eta, Giza Baliabidetako sailari zerbitzu hori ematea ahalbideratzeko bitartekoak egitea eskatzen zaio.
- Oiartzungo udalerriko industria-poligonoetako hiri-hondakinen bilketa zerbitzua emateko ondorengo Ordenantza Fiskaleko tasak aplikatzea proposatzen da:
 - Lokal edo establezimendu bakoitzaren metro kuadro bakoitzeko: 0,23 €/m².
 - Gainontzeko tarifak San Marko Mankomunitateak 2026ko apirilaren 1etik aurrera indarrean izango dituenak (GAO 2026ko otsailaren 2ko 20. Zkia.).

Udal idazkariak egindako txostenaren arabera:

1) Zerbitzu publikoaren kudeaketari dagokionez:

Hiri Hondakinen bilketa udalek derrigorrez eman beharreko zerbitzu publikoa da; horrela jasotzen Toki Jaurbidearen oinarriak onartzen dituen 7/1985 Legearen 25. eta 26. artikuluetan zein Euskadiko Toki Entitateen Legea onartzen duen 2/2016 Legearen 17. artikuluan. Eta 7/1985 Legearen 86.2 artikulua dio:

“Se declara la reserva en favor de las Entidades Locales de las siguientes actividades o servicios esenciales: abastecimiento domiciliario y depuración de aguas; recogida, tratamiento y aprovechamiento de residuos, y transporte público de viajeros, de conformidad con lo previsto en la legislación sectorial aplicable. El Estado y las Comunidades Autónomas, en el ámbito de sus respectivas competencias, podrán establecer, mediante Ley, idéntica reserva para otras actividades y servicios”.

Udalek euren zerbitzu publikoak emateko modu desberdinak dituzte eta horien arteko bat, zuzeneko izaerarekin, entitate merkantila osatzearena da. Horrela jasotzen duten aipatu 7/1985 Legearen 85 artikulua.

85.2. artikulua:

“Los servicios públicos de competencia local habrán de gestionarse de la forma más sostenible y eficiente de entre las enumeradas a continuación:

A) Gestión directa:

a) Gestión por la propia Entidad Local.

b) Organismo autónomo local.

c) Entidad pública empresarial local.

d) Sociedad mercantil local, cuyo capital social sea de titularidad pública.

Solo podrá hacerse uso de las formas previstas en las letras c) y d) cuando quede acreditado mediante memoria justificativa elaborada al efecto que resultan más sostenibles y eficientes que las formas dispuestas en las letras a) y b), para lo que se deberán tener en cuenta los criterios de rentabilidad económica y recuperación de la inversión. Además, deberá constar en el expediente la memoria justificativa del asesoramiento recibido que se elevará al Pleno para su aprobación en donde se incluirán los informes sobre el coste del servicio, así como, el apoyo técnico recibido, que deberán ser publicitados. A estos efectos, se recabará informe del interventor local quien valorará la sostenibilidad financiera de las propuestas planteadas, de conformidad con lo previsto en el artículo 4 de la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera”.

Guzti honen ondorioz esan liteke, hiri-hondakinen bilketarako eskumena udalena dela, nahiz eta Oiartzunek eremu industrialen bilketaren kudeaketarako 2004tik San Markosekin egindako hitzarmenaren ondorioz erakunde honek egikaritu duen.

Gauzak horrela, orain hartzen den erabakia kudeaketa egikaritzeko sistema aldatzean datza. Ez da jarduera ekonomikoa gauzatzeko erabakia ezta monopolizazioarena, eta ondorioz, ez dira aplikagarriak, ez 7/1985 Legearen 86.1 artikulua ezta 781/1986 E. Dekretuaren 97. artikulua.

2) Kudeaketa zuzena

Kudeaketa sistema edo moduetara itzulita, zuzeneko moduen artean zuzenbideko sozietate pribatuarena aukeratu nahi izanez gero, Memoria teknikoak egiaztatu beharko du udalak langile propioekin edo toki-erakunde autonomoarekin zerbitzua ematea baino jasangarriagoa eta eraginkorragoa dela.

Kontuhartzailearen txostenaren ondorioak:

Lehenengoa.– Garbitania SLn sartzek eta bitarteko propio pertsonifikatutzat hartzek Udalari aukera emango dio industria-poligonoetako hondakinen zerbitzuaren kontrol eraginkorra berreskuratzeko, eta honako hauek ahalbidetuko ditu:

- bilketa-eredu eraginkorragoa ezartzea,
- birziklatze-portzentajea handitzea,
- eta tasa zerbitzuaren benetako kostura egokitzea.

Bigarrena.– Udalak osorik mantentzen du tasaren gaineko araugintza- eta zerga-ahalmena, eta bermatzen du zerbitzuaren kostua dagokien subjektu pasiboek hartuko dutela beren gain. Oiartzungo Udalak Garbitanian parte hartzea erabakitzen badu, poligonoetako hondakinen bilketa eta kudeaketa tasa zehaztu beharko du Udalak. Tasa-proposamena zerbitzuaren kostu erreala eta erabileraren intentsitatea kontuan hartuta diseinatuko da, kostu-estaldura printzipioa errespetatuz.

Hirugarrena.– Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 85.2 artikularekin bat etorritik, toki-eskumeneko zerbitzu publikoak legeak aurreikusitako kudeaketa-formen artean jasangarriena eta eraginkorra denaren bidez kudeatu beharko dira.

Espediente honetan behar bezala egiaztatzen da (espediente jasotako txostenetan eta azterketa ekonomikoan oinarrituta) kapital osoa publikoa duen tokiko merkataritza-sozietate baten bidezko kudeaketa zuzenak -Garbitania Zero Zabor SLn parte hartuz eta hura bitarteko propio pertsonifikatu gisa eratu- **beste zuzeneko edo zeharkako kudeaketa-modalitate batzuk baino jasangarriagoa eta eraginkorragoa** dela, honako arrazoi hauengatik:

- kontrol publiko handiagoa eta zerbitzuaren zuzendaritza estrategikorako gaitasun handiagoa ahalbidetzen duelako,
- enpresa pribatuen irabazi-marjinarik ez dagoelako,
- baliabideen optimizazioa ahalbidetzen duelako beste udal batzuekin eskala-ekonomiak baliatuz,
- zerbitzua araudi- eta ingurumen-eskakizunetara egokitzeko malgutasun handiagoa ematen duelako, eta
- finantza-jasangarritasuna bermatzen duelako, Aurrekontu-Egonkortasunari eta Finantza-Jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 4. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Aurreko guztia ikusita, espediente jasotako dokumentazioa (memoria, txosten juridikoa eta partaidetzen balioespeneko txosten ekonomiko-finantzarioa) aztertuta, eta **2026ko Aurrekontuan** eragiketa honetarako **kreditu egoki eta nahikoa** dagoela egiaztatuta (kap. 8 – aktibo finantzarioak), **ez da oztoporik ikusten** Udalak Garbitania SLn **kapital-handitze bidez** 62 partaidetza harpidetzeko proposatutako eragiketari dagokionez.

Ondorioz, **aldeko txostena** ematen da **aurretiazko fiskalizazioaren** esparruan, **kontuan hartuta** etorkizunean enkargu, ekarpen edo bestelako konpromiso ekonomikorik balego, horiek **espediente independenteen** bidez izapidetu eta dagokion fiskalizazioaren mende jarriko direla.

Giza baliabideetako arduradunak egindako txostenak Oiartzungo Udalak industria-poligonoetako hondakin bilketa zerbitzua antolatu eta kudeatzeko aukera desberdinak aztertzen ditu, giza baliabideen kostu estrukturalen eta jasangarritasun ekonomikoaren ikuspegitik.

Udalak zuzenean kudeatuko balu zerbitzua, urteko gutxieneko kostua 304.811,21 eurokoa izango litzateke (311.127,95 euro Elkarbidetzaren ekarpena gehituz gero). Horrek udal-plantilla handitzea, lanpostu berriak sortzea, hautaketa-prozesuak egitea eta ordezkapen eta bajen kudeaketa zuzena bere gain hartzea ekarriko luke. Gainera, udal-aurrekontuko I. kapitulu modu estruktural eta iraunkorrean handituko litzateke, eta egiturazko gastu finkoak handitu egingo lirateke. Antolaketa-ikuspegitik ere, giza baliabideen eta administrazioaren lan-karga nabarmen areagotuko litzateke.



OIARTZUNGO
UDALA

Erakunde autonomo bat edo tokiko enpresa-erakunde publiko bat sortzea ere aztertu da. Bi kasuetan, zerbitzua emateko oinarrizko langile-egitura bera behar da, baina horri administrazio eta zuzendaritza egitura propioa gehitu behar zaio. Horrek antolaketa konplexuagoa eta egiturazko kostu handiagoa ekarriko luke, eskala-ekonomiarik edo aurrezpen esanguratsurik sortu gabe. Gainera, enpresa-erakunde publiko berri bat sortzeak hasierako ezarpen-kostu gehigarriak eta antolaketa-arriskuak dakartza, dagoeneko jardunean dagoen egitura bat aprobetxatu beharrean.

Kapital oso publikoa duen tokiko merkataritza-sozietate baten bidezko kudeaketa, hau da, Garbitania Zero Zabor SLren bidezko integrazioa, aukera eraginkorragoa dela ondorioztatzen da. Modalitate honetan ez da udal-plantillan lanpostu berririk sortu behar, ez da lanpostuen zerrenda aldatu behar eta ez da I. kapitulua handitzen. Zerbitzua dagoeneko egituratuta eta operatiboki martxan dagoen entitate batean integratzen da, eta horrek eskala-ekonomiak, ordezkapen-mekanismo egonkorak eta baliabide partekatuak ahalbidetzen ditu. Urteko langilegoaren kostua 303.289,32 eurokoa da, udalaren zuzeneko kudeaketarena baino apur bat txikiagoa.

Lizitazio publikoaren aukera ere aztertu da. Hasierako kalkuluetan, langile-kostuak soilik kontuan hartuta, zenbatekoa 301.374,63 eurokoa zen. Hala ere, zerbitzua emateko beharrezko kostu, eta gastu orokorrak zein etekin industrialak aplikatuta, kostu osoa 320.947,43 eurora igotzen da. Beraz, kostu osoa kontuan hartuta, lizitazio publiko bidezko kudeaketa Garbitania bidezko kudeaketa baino 17.658,11 euro garestiagoa da urtean. Gainera, kontratu bidezko ereduaren udalaren kontrol estrategikoa mugatuagoa da eta malgutasuna txikiagoa, kontratazio-araudiaren baldintzen menpe baitago.

Azterketa honek ondorioztatzen du, giza baliabideen, antolaketa-egituraren eta jasangarritasun ekonomikoaren ikuspegitik, Garbitania bidezko kudeaketa dela aukera egokiena. Ez du udalaren egitura organikoa handitzen, ez du gastu finko estruktural berririk sortzen eta kostu osoan lizitazio publikoa baino merkeagoa da. Halaber, kontrol publiko zuzena eta politika publikoen koherentzia estrategikoa mantentzea ahalbidetzen du, hondakinen kudeaketan ezarritako ingurumen-helburuak modu eraginkorrean gauzatzeko.

IV.- ZERBITZUAREN KOSTEA

Bideragarritasun txostenaren eta udal mendi eta ingurumen teknikariaren txostenaren arabera, zerbitzuaren kostea 621.701,32 € izango da. Bildutako frakzio batzuen kudeaketaren truke diru sarrerak sortuko dira, Ecoembesekin egindako hitzarmenaren ondorioz, adibidez, 69.960,01 €tan zenbatzen direnak, eta zerbitzuaren kostea beraz, 551.741,31€tako izango da. Hori da tasen bitartez estali beharko den kopurua.

V.- JASANGARRITASUN ETA ERAGINKORTASUNAREN JUSTIFIKAZIOA

GARBITANIA ZERO ZABOR S.L. egindako bideragarritasun txostenetik, udal teknikariek egindakoetatik, batez ere, kontu-hartzailearena eta giza baliabideetako arduradunarena, zerbitzua era honetara emateak jasangarritasun eta eraginkortasunaren printzipioak betetzen dituela.

VI.- ONDORIOAK

Jarduera ekonomikoetarako erabilera duten eremuetan hiri-hondakinen bilketa zerbitzua emateko kudeaketa zuzena egiteko eta kudeaketa hori tokiko merkataritza-sozietatearen esku uzteko baldintzak, 7/1985 Legearen 85.2 artikuluan eta 40/2015 Legearen 86.2 eta 9/2017 Legearen 32. Artikuluak ezarritakoak, betetzen direla ondorioztatzen da.

Done Eztebe plaza 1 – 20180 Oiartzun 943 490 142 – www.oiartzun.eus

EUSKAL HERRIA

EKS | CSV: ESKU764686cd-9423-4c90-acea-dfeac6d36971



Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310>